Xedapen Orokorrak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

3517

AGINDUA, 2010eko ekainaren 30ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan errepideko bidaiari-garraio publikoaren barruan, erabilera bereziko zerbitzu erregularretarako tarifak igotzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoan bederatzi jarlekutik gorako ibilgailuetan egiten dien errepideko bidaiarien herri arteko garraio-zerbitzu publikokoetan, erabilera bereziko erregularretan, kostu-egitura osatzen duten zenbait elementu aldatu egin dira. Hortaz, eta arloko hainbat elkartek hala eskatu dutenez, bidezko da indarrean dauden tarifak igotzea.

Ondorioz, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 4. artikuluak ematen didan eskumena erabiliz, eta Errepideko Bidaiari Garraioaren martxoaren 18ko 4/2004 Legearen 4.1 eta 48. artikuluak kontuan izanik, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoan bidaiarien herri arteko garraio-zerbitzu publiko erabilera bereziko erregularretan honako formula hau aplikatu beharko da gehieneko tarifa lortzeko:

P = 0,931206 + 0,016769n.

Kontuan izanik:

P= ibilgailuaren prezioa kilometroko, eurotan.

n= baimenduriko jarleku kopurua.

Agindu honetan ezarritako arauei jarraituz bete beharreko tarifa horri, araudiaren arabera dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zerga gehitu beharko zaio.

2. artikulua.– Bidaiarien erabilera bereziko garraio publiko erregularren tarifak ere erreferentziazkoak dira, eta ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

1.– Gehienezko tarifa: lehenengo artikuluan jasotako formula aplikatuz lortuko da.

Apirilaren 27ko 443/2001 Errege Dekretuaren 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, laguntzailea eramatea derrigorrezkoa denean, eta hura jartzea garraiolariari dagokionean, aipatutako tarifari eguneko

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

3517

ORDEN de 30 de junio de 2010, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, por la que se elevan las tarifas de referencia en los transportes públicos regulares de viajeros de uso especial, dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La variación de algunos de los componentes de la estructura de costes en los transportes públicos regulares de uso especial de viajeros por carretera de más de nueve plazas dentro de la Comunidad Autónoma, de carácter interurbano, aconseja, a petición de las diferentes asociaciones del sector, elevar las tarifas vigentes.

En su virtud, y en ejercicio de la competencia que me atribuye el artículo 4 del Decreto 607/2009, de 24 de noviembre, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, puesto en relación con los artículos 4.1 y 48 de la Ley 4/2004, de 18 de marzo, de Transporte de Viajeros por Carretera.

DISPONGO:

Artículo 1.– En los transportes públicos regulares de uso especial de viajeros de carácter interurbano, que se desarrollen dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la tarifa máxima se obtendrá aplicando la siguiente fórmula:

P = 0,931206 + 0,016769n.

Siendo:

P = precio veh./km en euros.

n = plazas del vehículo autorizadas.

Esta tarifa aplicada en cada servicio de conformidad con las normas establecidas en la presente Orden, llevará en cada caso el recargo correspondiente al Impuesto sobre el Valor Añadido de acuerdo con su normativa reguladora.

Artículo 2.– Las tarifas correspondientes a los transportes públicos regulares de uso especial, que tienen el carácter de tarifas de referencia, cumplirán las siguientes condiciones:

1.– Tarifa máxima: se obtendrá por aplicación del artículo primero.

Cuando de conformidad con lo previsto en el artículo 8 del Real Decreto 443/2001, de 27 de abril, sea obligatoria la presencia del acompañante y la aportación del mismo corresponda al transportista,

48,118919 euro gehitu beharko zaizkio, laguntzailearen ordainsari eta gizarte segurantzako gastuetarako.

2.– Gutxieneko tarifa: gehienezkoaren % 85ekoa izango da.

3.– Tarifa ezartzeko: joateko nahiz itzultzeko egindako bidaiak kontatu eta kilometrotara pasatuko dira.

Horretarako, joateko zerbitzutzat, bidaiarik eskolara edo lantokira eramateko zerbitzua hartuko da, eta, itzultzekotzat, haietatik etortzekoa; kilometroak, berriz, honela kontatuko dira:

– Bi bidaia: bat joateko eta beste bat itzultzeko= 115 km.

– Lau bidaia: bi joateko eta beste bi itzultzeko= 180 km.

– Sei bidaia: hiru joateko eta beste hiru itzultzeko= 210 km.

– Zortzi bidaia: lau joateko eta beste lau itzultzeko= 265 km.

– Hamar bidaia: bost joateko eta beste bost itzultzeko= 270 km.

– Hamabi bidaia edo gehiago: sei joateko eta beste sei itzultzeko= 275 km.

4.– Tarifa ezartzeko, arau hauek hartu beharko dira kontuan:

a) Zerbitzuan benetan egindako kilometroak aurreko puntu horretan jasotakoak baino gehiago badira, tarifa ezartzeko, benetan egindakoak hartuko dira kontuan.

b) Lantegi berean txandaka lan egiten dutenentzako zerbitzuetan, ibilgailu berak txanda batekoak utzi eta beste batekoak hartzen dituenean, egindako kilometroei % 50 gehitu beharko zaizkie.

c) Larunbat edo-eta jai egunetan egin behar den bidaiarien erabilera bereziko garraio erregularretan, aurreko paragrafoko kasua ez bada behintzat, egun horietan egindako kilometroei % 50 gehituko zaizkie.

5.– Artikulu honetako arauak erabilita ateratako prezioak gorabehera, bestelakoak jarri ahal izango dira, baldin eta, dauden ibilgailuen eskaintza eskaerarekin bat ez badator eta, hortaz, bidaiariak ibilgailuen jarlekuak baino nahikoa gutxiago badira –hau da, autobusen jarlekuen kopuruaren % 60 baino gehiago betetzen ez badira–; edo-eta garraio-lana egin behar den inguruaren ezaugarri bereziengatik, hau da, bai biztanle gutxiko gune sakabanatu gaizki komunikatuak direlako, bai inguru horretan garraiolaririk aurkitzen ez delako, gaitz gertatzen bada finkatutako tarifekin zerbitzurik kontratatzea.

la tarifa reseñada se incrementará con la cantidad de 48,118919 euros/día, correspondiente a retribución y cargas sociales de aquél.

2.– Tarifa mínima: será igual al 85 por 100 de la máxima.

3.– Para aplicación de la tarifa: el servicio se contabilizará en servicios o recorridos bien sean de entrada o de salida y se traducirá a kilómetros.

A estos efectos, se considerará entrada al transporte realizado al centro escolar o de trabajo y la salida será el transporte de regreso desde el mismo, y la aplicación de los kilómetros se realizará de la siguiente forma:

– Dos viajes o recorridos: uno de entrada y otro de salida= 115 km.

– Cuatro viajes o recorridos: dos de entrada y dos de salida= 180 km.

– Seis viajes o recorridos: tres de entrada y tres de salida= 210 km.

– Ocho viajes o recorridos: cuatro de entrada y cuatro de salida= 265 km.

– Diez viajes o recorridos: cinco de entrada y cinco de salida= 270 km.

– Doce o más viajes o recorridos: seis de entrada y seis de salida= 275 km.

4.– Para el cálculo de la tarifa se tendrán en cuenta las siguientes reglas:

a) Si el número total de kilómetros efectivamente recorridos en cada servicio fuese superior al computado según las normas establecidas en la condición anterior, será aquel el utilizado para la aplicación de la tarifa.

b) En los servicios de trabajadores a un mismo centro que realicen su trabajo por turnos, en los que un mismo vehículo deje viajeros de un turno y recoja los de otro, se aumentará en un cincuenta por ciento (50%) el número de kilómetros a aplicar.

c) Asimismo, aquellos supuestos de transporte regular de uso especial no contemplados en el apartado anterior que supongan la realización de servicios los sábados y/o festivos, se incrementará en un 50% los kilómetros efectuados durante dichos días.

5.– Se podrán acordar precios diferentes a los resultantes por la aplicación de las reglas de este artículo cuando por la inadecuación de la oferta de vehículos existentes a la demanda, la ocupación de dichos vehículos sea notablemente inferior a la capacidad de los mismos –entendiéndose por ocupación notablemente inferior aquella que no supere el 60% del número de plazas del autobús–, o cuando, por las especiales características de la zona en que se ha de desarrollar el transporte –bien por tratarse de núcleos dispersos con escasa población y dificultades de acceso, bien por falta de disponibilidad de transportistas de dicha zona–, no se puedan contratar los servicios por las tarifas fijadas.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe uzten da Euskal Autonomia Erkidegoko bidaiariak errepidez garraiatzeko bederatzi jarlekutik gorako ibilgailuetan ematen diren zerbitzu publiko eskatu ahaletarako zein erabilpen bereziko erregularretarako erreferentziazko tarifak ezartzen zituen Garraio eta Herri Lan sailburuaren 2009ko martxoaren 9ko Agindua eta Agindu honen kontrako beste edozein xedapen.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Baimena ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Garraioetako zuzendariari Agindu hau eta ezarri beharreko gainontzeko arauak interpretatzerakoan auzirik sortuz gero, horiek ebazteko.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra Agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 30a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Orden de 9 de marzo de 2009, de la Consejera de Transportes y Obras Públicas, por la que se establecen tarifas de referencia en los transportes públicos discrecionales de viajeros por carretera de más de 9 plazas, así como en los transportes públicos regulares de viajeros de uso especial, dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y cualquier otra disposición que se oponga a la presente Orden.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se faculta al Director de Transportes de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la resolución de cuantas cuestiones pudieran plantearse en la interpretación de la presente Orden y demás normas de aplicación.

Segunda.– La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de junio de 2010.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.